



## **MUTRIKUKO UDALERRIAN INGURUNE IREKIAN ARRISKU EGOERAN DAUDEN GAZTE ETA ADINGABEENTZAT GIZARTE HEZIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA TEKNIKOAK**

### **1.- KONTRATUAREN XEDEA**

Klausula teknikoen agiri honen xedea da Mutrikuko udalerrian arrisku egoeran dauden gazte eta adingabeentzako Ingurune Irekiko Gizarte-Heziketa Zerbitzuaren baldintzak deskribatzea, espresuki onartuta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako araudia, bereziki aukera-berdintasuna, genero-ikuspegia barneratzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea eta ordezkaritza orekatua.

### **2.- ZERBITZUAREN BALDINTZEN DESKRIBAPENA**

Ingurune Irekian Gizarte-Heziketa Zerbitzuaren helburu nagusia da garapen pertsonalean laguntzea arrisku egoeran egon daitezkeen gazteei eta adingabeei, eta tresna hezitzaileak eskaintzea, trebetasunak bereganatzeko eta udalerriko baliabide eta zerbitzu komunitarioetan (aisialdia, kultura, kirola, elkarteak, ...) normaltasunez parte hartzeko.

Kontratuak honako zerbitzu hauek izango ditu xedetzat:

- Gizarteratzeko eta harremanetarako ohiko ingurunea kalea duten pertsonak eta gazte taldeak antzematea. Talde eta pertsona horiekin biltzeko eta jarduteko lekuak antzematea.
- Arreta berezia jartzea arazo espezifiko batzuek detektatu eta horien jarraipena egiteko; hala nola, eskolan egokitu ezina, eskola porrota eta eskola goizegi uztea, gizarteratze prozesu desegokiak, droga kontsumo goiztiarrak, eta abar.
- Adingabeen jokaera eta ezaugarriak behatzea (haien gaitasunak, zailtasunak, e.a.) eta aldaketak bultzatzea, heziketarako jarraibideak eskainiz eta sustatuz haien gizarteratze prozesurako beharrezkoak diren beste gaitasun pertsonal eta sozialak sustatuz.
- Adingabeei laguntzea bizitza proiektu positiboak eraikitzeke garapen prozesuan.
- Adingabeen, euren familien, eskolaren eta komunitatearen artean harreman positiboak eraikitzeke eragitea.
- Koordinazioa eta elkarlana sustatzea Gizarte baliabideekin eta nerabeei zuzendutako baliabide komunitarioekin.

Gizarte Ongizate eta Gazteria Sailekin elkarlanean:

- Detektatutako taldeen ezaugarrien balorazioa egitea.
- Banakako, taldekako eta komunitateko esku hartzeak zehaztea.
- Kasu bakoitzaren jarraipena egitea, beste profesional batzuekin koordinazioa mantenduz.
- Kasu bakoitzaren bilakaera eta esku hartzearen egitasmoa ebaluatzea
- Bere ekintza hezitzailea gainditzen duten edo bere ardurapekoak ez diren kasuak Gizarte Zerbitzuetara bideratzea.



- Gizarteratze prozesu egokia erakusten duten pertsonak bideratzea izaera normalizatuko talde edota erakundeetara eta horietan txertatzea; eta aipatu taldeei laguntzea.
- Lankidetzan aritzea gazte eta nerabeekiko lanean eskumena duten beste erakunde, entitate eta instituzioekin (ikastetxeak, osasun zerbitzuak, elkarteak, ...).
- Gazteria eta Gizarte Ongizateko zerbitzuekin elkarlanean aritzea: gazte txokoak, ludotekak, gazte bulegoa, sexologia zerbitzua eta arlo psikosozialean eta gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua.

Lana burutuko da Udal Gizarte Ongizate eta Gazteria sailen zuzendaritzapean eta haiekin koordinatuz.

Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzea, kasuaren arabera, izango da banakoa, taldekakoa edo komunitatekoa, eta zerbitzu hauek emango dira:

- Informazioa, orientazioa eta bideratzea.
- Banakako eta taldekako hezkuntzako eskuhartzea.
- Bitartekotasuna: bitarteko normalizatueta igarotzea eta bitarteko egokituak sortzea edota bitartekoak egokitzea.
- Gizarte sentsibilizatzea.

### **3.- GIZA BALIABIDEAK, ETA ARRETA RATIOAK.**

A) Giza baliabideak.

Zerbitzua emango duen enpresaren langileek honako baldintzak betetzea nahitaezkoa izango da:

- Hezitzaile taldea gutxienez 2 hezitzailez osatuta egongo da eta mistoa izango da: emakumea eta gizona.
- Zerbitzuan jardungo duten langile biek (programaren exekuzioaren exekuzioaren arduradunak) Gizarte Hezkuntzan diplomatuak izango dira, edo Gizarte Langile jarduteko gaituak.
- Hezitzaile bakoitzak Administrazio 3. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea eduki behar du, baldintza administratiboaren agiriaren bat etorrita. Ziurtatuta ez dutenek Udaleko Euskara Zerbitzuak egingo dien proba gainditu beharko dute.
- Enpresako arduradun bat egongo da, hezitzaileen lan taldearekin zein Udaleko Gizarte Ongizate eta Gazteria sailekin koordinazio lanak egingo dituen.
- Pertsona horrek Gizarte Hezkuntzan diplomatura izan behar du, edo Gizarte Langile jarduteko gaituak izan. Adierazitako titulaziorik izan ezean, Gizarte Zientzietako gradu, erdi mailako edo goi mailako titulazioa egiaztatu beharko da.
- Enpresak gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatu beharko du Ingurune Irekiko Gizarte-Heziketan.



B) Arreta ratioak

Interbentzioaren hartzaileak izango dira arrisku egoeran dauden 11 eta 17 urte bitarteko haur eta gazteak. Hainbat kasutan, eta jarraipena egiteko helburua izanik, 30 urte bitartekoekin ere jardun daiteke lanean.

Programan parte hartuko duten gazte eta taldeen hautaketa, onarpena eta mantentzea Udaleko Gizarte Zerbitzuekin adostuko da aldez aurretik.

#### **4.- PROGRAMAREN ESKURA DAUDEN BALIABIDE MATERIALAK.**

Honako baliabide materialak jarriko dira programaren eskura:

- Ordenagailua, inprimagailua eta telefonodun bulegoa hezitzaileentzat.
- Hezitzaileek, kontratuaren xedearekin lotutako jarduerak burutzerakoan, gazteekin zenbait ekintza garatzeko udal ekipamenduak erabiltzeko aukera izango dute, dagokion sailaren baimenarekin.

#### **5.- EGUTEGIA**

Zerbitzuaren eskaintza urte osoan zehar bermatu beharko da, eta enpresak sor litezkeen egoerak aurreikusi beharko ditu eta horiei erantzuna eman.

#### **6.- JUSTIFIKAZIOA**

Hilero fakturazioarekin batera honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- Banakako proiektuetan nahiz taldekakoetan parte hartzen duten gazteen zerrenda.
- Ekintzen txostena, dagokion gastu xehetasunarekin (hilabete horretan ekintzak egin izan badira).

Sei hilean behin:

- Programaren balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak.

Urtekoa:

- Egindako lanaren urteko memoria.
- Zerbitzuko gazte hartzaileei eta eskuhartzean inplikaturiko hainbat agenteri egindako asebetetze inkestaren emaitza (ikastetxeak, osasun-zentroak, kultura eta gazteria saila).



## **7.- UDALAREN EGINBEHARRAK**

Gizarte Ongizatea eta Gazteria departamentuek koordinatuko dute Ingurune Irekian Gizarte Heziketa Zerbitzua eta hauek izango dira beteko dituzten funtzioak:

- Ingurune Irekian Gizarte Heziketa Zerbitzuaren buru izatea.
- Programa herriko errealitatera eta hartzaileen beharretara egokitzea.
- Kale hezitzaileekin aldiro koordinatzea.
- Programaren finantzaketa baliabideak koordinatzea.
- Programaren edozein hobekuntza planteatzea, Heziketa Konpentsatorioko Kontsurtzioak proposatutako oinarriei jarraiki.

## **8.- KOORDINAZIOA**

Ingurune Irekian Gizarte Heziketa Zerbitzuaren hezitzaile taldeak koordinazio plangintza bat burutuko du udal arduradunekin batera. Kale hezitzaileak honakookin koordinatuko dira:

- Gizarte Ongizatea: gizarte langileak.
- Gazteria Saila: gazteria teknikaria, gaztelekua, ludoteka.
- Udalerriko ikastetxeak.
- Kultura.
- Beste.

Mutriku, 2017ko urtarrilaren 4a